



XXXXX

OSASUN SAILA
(Euskal Osasun Zerbitzua)

1811/2006 EBAZPENA, abenduaren 21koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena, Osakidetzan estatutario finko izateko 2006ko aukeraketa-prozesuetan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko koordinazio-batzordea izendatzen duena. Orobat Ebazpen honen bidez Osakidetzako Euskara zerbitzuari eta IVAPi ematen zaie aukeraketa-prozesuetan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egiteko eta kalifikatzeko ahalmena, eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prozesua zehazten du.

Osakidetzako Zuzendari Nagusiak 2006ko urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaz (EHAA, 2006-10-24; 203 zk.) onartu ziren Osakidetzan estatutario finko izateko 2006ko aukeraketa-prozesuak aratzen dituzten oinarri orokorrak. Ebazpenaren 10.oinarrian jasota dago hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak kategoriako oposizio-aldia gainditzen duten izangaiantzat, egiaztapen hori kontuan har dezaten, bai betekizun bezala nahiz merezimendu bezala, kategoria bakoitzeko epaimahaiak.

Era berean, aurreikuspen bera jasotzen du abenduaren 16ko 55/2003 Legeak 30.artikuluan, Osasun Zerbitzuetan Lanean Dihar duten Langileen Estatutu Markoa ezartzen duenak, hizkuntza-eskakizunen egiaztapena aurreikusten baitu estatutario finko izateko aukeraketa-prozesuetan.

Azaroaren 11ko 255/2003 Dekretuak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Estatu Sozialak ezartzen dituenak, Erakunde Zentralari ematen dio aukeraketa-prozesuetara deitzeko eta prozesuok antolatzeke eskumena, bai eta deialdi horien oinarriak ezartzeko eta organo kalifikatzaileak izendatzeko ere.

Bestalde, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko denak, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak aurreikusten ditu langileak hartzeko hautaketa-prozesuetan, lanpostuak betetzeko prozesuetan eta aldi baterako lanerako zerrendak osatzeko deialdietan.

Orain arte burututako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prozesu arruntetan Osakidetzako Euskara Zerbitzuari eman zaio 1,2 eta 3 hizkuntza-eskakizunen probak egiteko eta kalifikatzeko ahalmena. Hori horrela izanik, egokia da eginbehar hori Euskara zerbitzuari ematea, eta arduratu beharko da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzen dituzten izangaien zerrendak aukeraketa-prozesuetako epaimahai kalifikatzaileen eskuetan jartzeaz. Horretan Osakidetzako Euskara Zerbitzuak IVAPen beharrezko lankidetzara izango du.



Euskal Administrazio Autonomikoan 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ahalmena Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeari eman izan zaionez, egokia da eginbehar hori oraingoan ere IVAPi ematea.

Horiek horrela, Osakidetzako Euskara Zerbitzuaren eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen arteko koordinazioa beharrezko koordinazioa bermatzeko, halaber egokia da Koordinazioko Batzorde Teknikoa eratzea, IVAPen ordezkari bat izango duena.

Azkenik, egiaztatzeko prozedura bat etorri behar da, funtsean, Osakidetzak, Administrazio Autonomiko orokorrak, Foru Administrazioak eta toki-administrazioek hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko orain arte egindako prozesuekin, baina barnean hartu duen aukeraketa-prozesu masiboaren baldintzei eta ezaugarriei egokituta.

Ondorioz,

EBATZI DUT:

1. artikulua.- Osakidetzako Euskara Zerbitzuaren eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen arteko Koordinazioko Batzorde Teknikoa eratzea izendatzea, ondoren zerrendatzen diren kideak dituela:

Mahaiburua: Marta Santamaría Saratxo
Idazkaria: Rafael Egiguren Rekalde
1 kidea: Luis Iarruzea Murga
2 kidea: Andoni Vivas Jauregi
3 kidea: Susana Jauregialzo Arregi (IVAPen ordezkaria)
Ordezkoa: Jose Maria Robles Aranburu (IVAPen ordezkaria)
Aholkularia : Roberto Manjón Lozoya

Koordinazioko Batzorde Teknikoak probetarako azterketa-ereduak ikus-onets ditzake. Proben behin-behineko emaitzen kontra jarritako erreklamazioez arduratuko da, eta Osakidetzako Euskara Zerbitzura deribatuko ditu.

2. artikulua.- Osakidetzako Euskara Zerbitzuari ematea 1,2 eta 3 hizkuntza-eskakizunen probak egiteko eta kalifikatzeko ahalmena, Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaren bidez deitutako 2006ko aukeraketa-prozesuetan. Euskara Zerbitzuak aukeraketa-prozesuetako epaimahai kalifikatzaileen eskuetan jarri behar dituzte probetan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzen dituzten izangaien zerrendak.

3. artikulua.- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeari ematea 4.hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ahalmena, Osakidetzako Zuzendari



Nagusiaren urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaren bidez deitutako 2006ko aukeraketa-prozesuetan.

4. artikulua.- Izangaiei espresuki deituko zaie hizkuntza-eskakizunen proba jakin batzuk egitera, eta proba horietan bakarrik parte hartu ahal izan dute.

5. artikulua.- Izangaiek hizkuntza-eskakizun baten baino gehiagoren probak egin badituzte, gaingitu duten mailarik altueneko hizkuntza-eskakizuna bakarrik egiaztatuko zaie, beti ere aukeraketa-prozesuan aurkezten diren kategorien hizkuntza-eskakizunen arabera.

6. artikulua.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko idatzizko probak gaingitzen dituzten izangaiak ahozko probetara deituak izango dira. Ahozko probetara deitutakoen zerrenda Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren Ebazpen baten bidez jarriko da jende aurrean, zerbitzu-erakundeetako iragarki-oholetan eta Osakidetzako Euskal Osasun Zerbitzuko web orrian jarritz.

7. artikulua.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko kalifikazioak orokorrak izango dira, eta Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren Ebazpen baten bidez jarriko dira jende aurrean, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako iragarki-oholetan eta web-orrian jarritz.

Behin-behineko kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 7 egun baliouduneko epea izango dute interesatuek erreklamazioak Osakidetzako Zuzendari Nagusiari aurkezteko. Erreklamazio horiek onartuak edo ezetsiak izango dira behin betiko kalifikazioak ezagutzera emango dituen Ebazpenaren bidez.

8. artikulua.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin betiko kalifikazioak orokorrak izango dira, hau da, "gai" edo "ez gai". Behin betiko kalifikazioa "gai" izateko, beharrezkoa izango da prozesuko proba guztiak gaingituta edukitzea. Behin betiko kalifikazioak Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren Ebazpen baten bidez onartu eta jende aurrean jarriko dira, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako iragarki-oholetan eta web-orrian.

9. artikulua.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako eskabideak kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da eskatzaileei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta Osakidetzari eta erakunde eskudunei lagatzea. Ebazpen honen ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.



Deialdi honetan parte hartzen duten hautagaiak onartu egiten dute ebazpenaren helburua betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua.

Era berean, onartu egiten dute datuak jasotzea eta tratatzea, emaitzei buruzko informazioari dagokionez eta lagatzea erakunde eskudunei ebaluazio-txostena egiteko; txosten horrek bere baitan hartuko ditu gutxienerako helburuen eta lehentasunen betetze maila, hizkuntzaren aldetik gaitzeko prozesuak, eta hizkuntza-eskakizunen egiaztatze gradua (67/2003 Dekretua, martxoaren 18koa, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzeko, 1.3. artikulua).

Eskatzaileei buruzko informazioa Datuak Babesteko Espainiako Agentzia izenekoan erregistratutako Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren "Registro del personal de Osakidetza-SVS" izeneko fitxategietan egongo dira. Eskatzaileek Fitxategietako datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero "Registro del personal de Osakidetza-SVS" izeneko fitxategiaren kasuan Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo dezakete: Araba kalea 45; 01006, Vitoria-Gasteiz.

10. artikulua.- Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, Ebazpena iragarki-oholetan eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko web orrian jendea urrean jarri eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 21a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusia

GLORIA QUESADA MENÉNDEZ